araba álava
foru aldundia diputación foral

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

Foru Aldundiak desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea, inklusioa eta haienganako begirada aldatzea sustatuko du, abenduaren 3a dela eta

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 700 pertsona inguru bilduko ditu Iradier Arenan egingo den jai giroko jardunaldi handi batean, 'Bihotzez trebeak' lelopean

Indesak 'Aldatu begirada' kanpaina abiaraziko du, enpresan lan egiten duten pertsonak protagonista direla

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 26a. Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) eta Indesaren bitartez, hainbat ekimen antolatu ditu abenduaren 3a, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna, ospatzeko, desgaitasuna duten pertsonek Arabako gizarteari egiten dioten ekarpena ikusarazteko, haien parte hartzea sustatzeko eta begirada inklusiboagoa eta aurreiritzirik gabekoa izaten laguntzeko.

Bi erakundeek bultzatutako jarduerek desgaitasuna duten pertsonei beren bizi proiektuan laguntzeko konpromiso partekatua islatzen dute, haien autonomia, gizarte inklusioa eta enplegurako sarbidea erraztuz. GOFEk gizarte, laguntza eta lanaurreko arreta garatzen du, eta Indesak, berriz, gizarte inklusioaren eremuan lan egiten du pertsona bakoitzaren gaitasunetara egokitutako enplegu aukerak eskainita.

Ekintza horiek aurkezteko, Eneko Etxeberri eta Mikel Sañudo GOFEko zentro okupazionaletako erabiltzaileek eta Indesako langile Martika Verásteguik eta Lilia Escalantek erakunde horietako zuzendari kudeatzaile Ernesto Sainz Lanchares eta Ander Eguidazuri lagundu diete, hurrenez hurren, gaur goizean Arabako Foru Aldundian egindako ekitaldian.

Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako GOFEren zentro okupazionalek zentroen arteko ohiko topaketaren espiritua berreskuratuko dute. Topaketa hori ezin izan zen joan den ekainean egin, muturreko bero gertakariagatik. Hala, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunean, jaieguna abenduaren 3an izango da, eta 700 pertsona inguru bilduko dira lurraldeko eguneko arretako baliabideen erabiltzaileen eta profesionalen artean. Ospakizunera gonbidatuta daude Arabako hamar zentro okupazionalak, bai eta foru sareko beste zerbitzu batzuk ere, hala nola Etxebidea, Autonomia Pertsonaleko Zentroa, Ehari, Zabalgana, Landaberde eta Lakondoa.

Jardunaldiak, gainera, zentro okupazionaletako erabiltzaileek berek aukeratutako leloa aurkezteko balioko du, eta horretarako, baliabide guztiek parte hartu duten lehiaketa bat egin da. Irabazle atera den proposamena 'Bihotzez trebeak' izan da, Helios zentro okupazionalak aurkeztua eta bozketa bidez hautatua parte hartzaileen artean.

Ekimen horren parte gisa, zentro arteko batzordeak oroitzapenezko txapa bat diseinatu du, non lelo irabazlea eta Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Egunaren sinboloa jasotzen baitira, bihotz

Raquel Ugarriza Mendibil – rugarriza@araba.eus - 945 18 19 02 – prentsa.araba.eus

baten bidez irudikatua. Txapak zentro okupazionaletan bertan egiten ari dira, eta ospakizunean zehar banatuko dira.

Ekitaldi nagusia Iradier Arenan egingo da, Joselu Anayak taldearen eskutik. Talde hori bereziki estimatua da eguneko arreta zentroetako erabiltzaileentzat. Jardunaldian, halaber, manifestu bat irakurriko da, jaialdian beteranoena den parte hartzailea aintzatetsiko da, eta saria emango zaio lelo lehiaketa irabazi duen ikastetxeari.

Indesaren jarduera, herritar guztiei irekia, abenduaren 3an eta 4an

Bestalde, Indesa Arabako desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko Foru Aldundiak sustatutako enpresak 'Aldatu begirada' kanpaina aurkeztu du. Ekimen horren bidez, gonbit egiten zaie herritarrei desgaitasunetik harago begiratzera eta pertsona bakoitza osatzen duten dimentsio guztiak aitortzera. 'Ikusten dugun lehenengo gauza gutxitan da garrantzitsuena' leloak zalantzan jarri nahi ditu estereotipoak, eta desgaitasuna duten pertsonen interesetan, gaitasunetan eta bizi proiektuetan jarri nahi du arreta.

Indesako hainbat eremutan lan egiten duten sei pertsona izan dira kanpainaren protagonista: Karlos industrialetik dator, Ana garbitegitik, Javi lorezaintzatik, Martika Zerbitzuetatik, Marcos sukaldetik, eta Lilia garbiketa arlotik.

Beren istorioen bidez, beren zaletasun eta interes pertsonal batzuk partekatuko dituzte, lehen begirada baten ondoren oharkabean pasatu ohi diren bere bizitzako alderdiak erakusteko: Carlosi bizikletan ibiltzea eta zinemara joatea gustatzen zaio; Anak beste pertsona batzuei laguntzen eta boluntario lanak egiten gozatzen du; Javiri irakurtzea eta Erdi Aroko azokak bisitatzea gustatzen zaio; Martikak moda, dantza eta musika maite ditu; Marcosek rapa eta futbola, bai eta sukaldaritza ere, eta Lililiari dantza egitea, igeri egitea eta musika entzutea gustatzen zaio.

Sentsibilizazio ekintzak hainbat espazio eta kanaletan zabalduko dira. Horrez gain, abenduaren 3an eta 4an El Boulevard merkataritza zentroan herritar guztiei irekitako jarduera batekin osatuko da ekimena. Bisitariek sei panelez osatutako erakusketa bat ikusi ahal izango dute, bai eta protagonisten istorioak ezagutu, Zuzenak elkartearekin eta desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duten beste elkarte batzuekin antolatutako jarduera batean parte hartu, eta kanpainarako prestatutako espazioan argazki bat egin ere.